

ZURICH MARATOI TXIKI FESTA

- 1** Infantilak (1.200m - 3 bira)
- 2** Alebinak (700m - 1,75 bira)
- 3** Benjaminak (400m - 1bira)
- 4** Aurrebenjaminak (250m)
- 5** Txupetinak (150m)

15h30 Infantil mutilak/chicos (2006-2007)

15h40 Infantil neskak/chicas (2006-2007)

15h50 Alebin mutilak/chicos (2009)

16h00 Alebin mutilak/chicos (2008)

16h10 Alebin neskak/chicas (2009)

16h20 Alebin neskak/chicas (2008)

16h30 Benjamin Mixtoak (2011)

16h40 Benjamin Mixtoak (2010)

16h50 Aurrebenj./Prebenj. Mixtoak (2013)

16h55 Aurrebenj./Prebenj. Mixtoak (2012)

17h00 Txupetin Mixtoak (2016)

17h05 Txupetin Mixtoak (2015)

17h10 Txupetin Mixtoak (2014)



Dejaldi ganbera
Cámara de Ilumadas

Helmuga / Meta

Irteerak / Salidas

Askaria
Merienda

Elkargunea
Zona recogida

ZURICH MARATOI TXIKI FESTA 2019 - ARAUDIA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Hernaniko C.D. Fly Group eta GAF-ek (Gipuzkoako Atletismo Federakuntza), Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, ZURICH MARATOI TXIKI FESTA antolatuko du 2019ko azaroaren 23an, larunbatean, arratsaldeko 15.30etatik aurrera. Haurrentzat prestaturiko lasterketa lauak izango dira Anoetako kirol zonan.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa hauek 3 eta 13 urte bitarteko haurrentzat irekiak daude. 2006 eta 2016 urteen artean jaiotako haurrentzako (biak barne).

3. ARTIKULUA – IZEN-EMATEAK

Izen-emateak 3 euroko salneurria izango dute eta irailaren XXXXan irekiko dira. 1.200 haurretara mugatuko da partaidetza. Izen ematea burutu ondoren ez da itzulketarik egingo.

Izen-emateak on-line erara burutuko dira <http://www.maratoitxikidonostia.com> helbidean, irailaren XXXXtik aurrera.*

On-line plataformaz gain, izen emateko puntu bat fisiko ere izango ditugu:

ROBERS – Larramendi K. 10 – Donostia

*Izen-emateak 1.200 parte-hartzailetara iristerakoan itxiko dira. Dorsalak amaituko ez balira, epea azaroak 21an arratsaldeko 24.00ak arte luzatuko da.

Probaren egunean ez dira izen-emateak onartuko.

4. ARTIKULUA - DORTSALEN BILKETA

Parte-hartzaile guztiek dorsalak Antonio Elorza Belodromoan jasoko dute hurrengo egun eta ordutegietan:

Ostirala, azaroak 22a 17.00etatik 20.00etara.

Larunbata, azaroak 23a 10.00etatik 14.00etara.

Dorsala jasotzeko, izen ematearen konfirmazioa aurkeztea derrigorrezkoa izango da.

5. ARTIKULUA - ORDUTEGIAK ETA DISTANTZIAK

Lasterketek honako ordutegi orientatiboa jarraituko dute:

- 15h30 Infantil mutilak / Infantiles chicos (2006-2007) 1200 metros
- 15h40 Infantil neskek / Infantiles chicas (2006-2007) 1200 metros

- 15h50 Alebin mutilak / Alevines chicos (2009) 700 metros
- 16h00 Alebin mutilak / Alevines chicos (2008) 700 metros
- 16h10 Alebin neskak / Alevines chicas (2009) 700 metros
- 16h20 Alebin neskak / Alevines chicas (2008) 700 metros
- 16h30 Benjamin Mixtoak / Benjamines Mixto (2011) 400 metros
- 16h40 Benjamin Mixtoak / Benjamines Mixto (2010) 400 metros
- 16h50 Aurrebenjamin Mixtoak / Prebenjamines Mixto (2013) 250 metros
- 16h55 Aurrebenjamin Mixtoak / Prebenjamines Mixto (2012) 250 metros
- 17h00 Txupetin Mixtoak / Txupetines Mixto (2016) 150 metros
- 17h05 Txupetin Mixtoak / Txupetines Mixto (2015) 150 metros
- 17h10 Txupetin Mixtoak / Txupetines Mixto (2014) 150 metros

6. ARTIKULUA - DEIALDIA ETA DEI GELA:

Antolakuntza hobe baterako, eta aldi berean beroketa-luzaketa pauta egoki batzuk burutu ditzazten, haurrek eurentzako prestaturiko dei gelara joan beharko dira proba hasi baino 20 minutu lehenago. Gune hauek adin ezberdinentzat banaturik egongo dira, eta GAF-eko klubetako monitoreak egongo dira.

7. ARTIKULUA - SARIAK

Dortsalaz gain, parte-hartzaile guztiak oroitzapenezko kamiseta bat eskuratuko dute proba baino lehen eta askari oso bat duen poltsa bat jasoko dute probaren amaieran.

8. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATU-EMATEA

Parte-hartzaile guztiak izen-ematearekin batera araudi honen onarpena baieztatuko dute, eta horrekin **Gipuzkoako Atletismo Federazioa** eta **CD FLY GROUP** baimentzen dituzte hauen medio edo hirugarren entitateen bidez, datuak informatikoki erabil ditzaten, beti ere kirol, promozio eta helburu komertzialetarako erabil ditzaten euren datu pertsonalak, eta baita ere euren irudia, bideo, argazki etab.-en bitartez.

15/1999ko abenduak 13ko lege organikoak ezartzen duenarekin batera, datu pertsonalen babesei buruz, parte-hartzaileak fitxategi hauetara sarrerak muga ditzake, beti ere zuzenketak egiteko, datuak ezabatzeko era partzial edo osotasunean. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du **Gipuzkoako Atletismo Federakuntzak** duen helbide sozialean (Portuetxe 23B, 4. Solairua, seigarren bulegoa, DONOSTIA) edo baita **FLY GROUP**-en (Pol. Akarregi, Parc.12; Pab. 5 – 20120 Hernani).